

- **Entzutekuak:** Suar Aizpuru ekintzaile gazteari elkarrizketa
- **Zer berri:** Kooperatibako mendeurrena maiatzaren 22an

soraluzeko
hamabostekaria **220.** alea
2010eko apirilaren 30ean

PIL-PILEAN

Argazkia: I. Avantzabal



VENTOS DE SAUDADE
**“Saudaderik gabe
ez dago fadorik”**

Soraluzeko
elkartasun

ekainak 5

eguna
2010

**GRAFITIXAK JOALDUNAK
UMIENTZAT JOLASAK
UMIENTZAT PUZGARRIXAK
BAZKARI HERRIKOIA
EKITALDIA**

GABIAN KONTZERTUAK

ARMYARMA OREN BI

GOVERNORS

DJ PAPI DJ TITINO

**HERRIXAN ZIHAR MUSIKIA
PESKAILLA & UEKILLO
KAOSAREN ERASOAK
KLABO OXIDADO
NAPOKA HIRIA
ELEKTRO TXARANGA
HANK**



Heriotza zigorrik ez! Biziarteko zigorrik ez! Sakabanaketarik ez!

Elizpe

Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)



GORKA PRIETO



EGUZKIÑE ALDAZABAL

BASKO PRESS

Iepa Eguzkiñe!!!

Biharamunean egunero eguzkia berriro iritzen dela entzutera guztiz ohituak gaude. Hala gertatu zen 2003ko otsailaren 20an ere, eguzkia irten, irten zen, inork espero ez zituen itzal luzeagoak sortuz ordea.

Egunero legez, kotxean nindoala harrrapatu ninduen berriak goizeko 7etan. Horrela enteratu nintzen Martin Ugalde Parkean berdez mozorrotutako konpartsa batek prestatu zuen jai sorpresaz. Euskalgintzan eta euskarazko kazetagintzan mugitu izan garenok (batzuk alor profesioaletan eta beste asko, neu euren artean, arlo amateurrean) geurea zen zerbait bahitzen zigutela sentitu genuen hasiera hasieratik.

Gizartearen gehiengo (behingoz) elkartu eta bere ahotsa entzunarazi zuen lau haizetara. Ez dut inoiz berriz sentitu lehen egun mugitu haietan Donostian izan zen manifestazioan sentitu nuena.

Lotsagarriena ez zait hainbeste urte luzatu den muntaia bera iruditzen, hala ere. Lotsagarriena azken egunotan, sententzia argitara eman ostean entzun behar izan ditugunak dira, batik bat Eusko Jaurlaritzatik. Sententzia aurretik ez zuten posizionatu nahi. 'Justiziarengan konfidantza' izan behar zela zioten haiek. Sententzia kaleratu ostean, beraiengandik entzundako hitzek sumindu naute.

Mendia andereñoaren arabera, 'egunkaria komunikabide bat den heinean bidegabekeria izan-go litzateke berau ixtea, deliturik egonez gero pertsonen aurka joan beharko litzateke, inoiz ez egunkari baten aurka'. Joño, joño, ba ez dut nik uste gure Idoia 'Egin' egunkaria ezagutu izateko gazteegia denik...

Memoria kontua dela uste al duzu, Eguz?

“

Lotsagarria da azken egunotan entzun behar izan duguna

Gorka Prieto

Egun hartan euskaldun guztion etxeetan lapurtu zuten zerbait

Eguzkiñe Aldazabal

”

Gorka,

Ez dakit ba nik memoria kontua den... memoria ona edukitzeko fosforoa hartu behar omen da, baina nik uste horiek denak majo janda bizi direla eta sudokuak egiteko denbora ere hartuko dute egunean zehar...

Nik uste artzai "potoloren" batek gidatzen dituela... eta ez justu Arantzazu edota Aralar inguruko artzairen batek... Ardia bakarrik gelditzen denean, ez du jakiten zer egin, nola bizi iraun, eta artaldearen beharra izaten du bakardadetik ihes egin eta ongi sentitzeko. Gizarte batean bizi garen ez, denok daukagu talde baten partaide izateko beharra modu batean edo bestean: familia, kuadrila, bikotekidea, lankideak...

ez gaude bakarrik bizitzeko eginak... Baina harrigarriena, neretzako, jendeak iritiz nola aldatzen duen ikustea da. Edota nola isiltzen dituen gauzak taldearen mesedetan eta nola oldartzen den bapatean berak ere sinisten ez dituen diskurtsoak botaz. Eta kasu honetan, diskurtsoak aldatuz.

Neri beldurra halako jendeak ematen dit, interes konkretu batzuegatik euren iritzia eta pertsona hainbeste aldatzen dutenak. Halako jendea da niri edozein kale-artaldetik ihes egiteko gogoia pizten didana, mendira alde egin eta benetako ardien ondoan bizitzeko gogoia pizten didana, bakardade librea...

Ez gara konturatzen denok artalde berdietik gatzela ala ze? Egun hartan euskaldun guztion etxeetan lapurtu zuten zerbait... euskaldun, eta ez euskaldun, memoriadun, "burudun" diren guztien etxeetan.

Memoria bapatean galtzen duten horientzako, Mikel Urdangarinek zioen bezela, "ontza bat txokolate goizian onena..." ... ontza bat, edota zenbaitzuen kasuan, tableta guztia...

Eskuminak!

Goguan hartzeko

"Menpekotasun lotsagarri hau urratu daigun!"

J.I.Iztueta



GUTUNAK

Etxebizitza problematika

Etxebizitza problematikari aurre egiteko administrazioen benetako inplikazioa behar da.

Gutxien daukanak etxebizitzarako duen eskubidea bermatzeko, alokairuaren prezioa norberak ordaindu dezakeenaren arabera behar du izan.

Etxebizitza izateko etxea erosi beharraren ideia oso hedatua dago gure jendartean, baina etxebizitza inbertsio bezala ulertzeak espekulazioari bide ematen dio. Bizitza hipotekatzera behartu nahi gaituzte. Askoren pobrezia: batzuen irabazi lotsagarria.

Gure bizitzak ez hipotekatzeko, espekulazioari aurre egiteko: alokairuzko etxebizitza sozialak bultza-

tu behar dira, ondasun publikoak direnak, publikoak izaten jarraituz eta gehien behar duenari eskainiz.

Horregatik defendatu izan dugu beti Maisuen Etxeak alokairuzko etxebizitza sozialetan bilakatu behar direla; jakina, lan askoz gehiago egin behar da oinarrizko eskubide hori bermatzeko bidean.

Baina Soraluek aukera gutxi ditu horrelako ekintzak bultzatzeko, ez baitu herri handiek duten gaitasun ekonomikorik. Orain dugu benetako aukera herriarenak diren etxeak eraberritzeko eta gutxien daukanari eskaintzeko.

Soraluzeko Ezker Abertzalea

Goazen independentziara eta sozialismora

Frantziak eta Espainiak aske izan nahi duen gazteria indarrez lotzen dute. Gure herria ukatzera eta prekaritatean bizitzera kondenatu nahi gaituzte.

Baina gazteoi, zapalkuntza, errepresio eta ukazioaren aurrean aski da! esateko unea iritsi zaigu. Bestelako eredu eta balore batzuen arabera eraiki behar dugu gure herria, independentzia, herri eredu oso bat bezala ulertzen baitugu. Azken finean, pertsona askez osaturiko herri aske bat dugu helburu. Hau hala izanda, Soralueko gazte independentistok martxoan jardunaldiak burutu ditugu: pelikula emanaldia, hitzaldia, bertso afaria... gure alternatiba independentzia dela ozen aldarrikatzeko.

Horregatik herriko gazteengana jo eta gazteon arteko harremana indartu eta sistema patriarkalak inposatzen dizkigun arazoan edukiak landu, eztabaidatu eta hauen alternatibak zein izan daitezkeen konpartitu nahi izan dugu, honekin sistema patriarkalaren aurrean Soralueko gazteon kritika eta elkarlana aktibatu nahian.

Maiatzetik aurrera jardunaldiekin edukiak lantzen jarraitzeko asmoa dugu. Independentziaren bidean urratsez urrats borrokan segitzeko ilusioz beteta.

Soraluzeko Gazte independentistak

Maixuen etxeak bizirik

Badira 4 urte frontoiko maixuen etxeetan sartu ginela. Urte luzeetan hutsak egon zirenak. Urte hauetan etxebizitzaren panorama ikusita okupatzera animatu den jendea batu da bertara, inoren zai egon beharrean.

Udala etxebizitza hauen inguruko proiektu bat garatzen ari da. Bertako sei etxebizitza konpondu, berriztu eta alokairuan jartzea da helburua. Tartean gure azken urteetako bizileku diren 3 etxeak. Gabonak aldera, Udalak, diru laguntza eskaera egin zuen, eta ondoren, akordio batera iristeko proposamena luzatu zitzaigun. Hori bai,

proiektua moldatu edo atzera botatzeko aukerarik gabe, beraz, oinarriak zehaztuta zituen proiektu baten parte hartzeko aukera eman zitzaigun. Hori ez da ez akordio ez aukera ematea! Guk 3 etxebizitza berriztu eta konpontzea proposatu genien, eta beste hirurak berriz, gure kudeaketa pean jarrai zezatela. Ez zuten onartu.

Ez dugu ulertzen bertan bizitza proiektuak martxan egonda gure bizimoduak kaleratzea beste proiektu bat garatzeko. Ez dugu ezer ezkutatzeko, ez dugu ezer erregutzeko.

Bizileku eta bizimodu h(A)utsak harrotu!!

Soraluzeko maisuen etxietako okupak

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soralue, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

bittartetik



Aitor Morillo
Hanka Labanka

Zer demontre da Hanka Labanka? Lehenik eta behin izen honi loturik doan kirola aurkeztuko dizuet. Lehenik hanka bat, gero bestea, labanka, labanka, dagoeneko bi hankak labanka eta segi labanka, nekatu arte hankak. Bai, badakit poeta moduan etorkizun handirik ez dudala. Hona hemen erantzuna: patinaia eta zehazki "inline" patinaia. Eta Hanka Labanka zer den? Bergarako Inline Patinaia Elkarteak. Martitzen eta barixakuro Bergarako Labegaraietako kiroldegian batzen gara, patinaia mota honek eskaintzen dituen aukera ezberdinak praktikatzeko; Slalom-a, Abiadura eta Hockey-a.

Eta hau ez al da umeen jolasa, Aitor? Ba bai, bertan batzen garen ume guztion jolasa, 5 urtetatik hasita 100 urte bitarteko umeena. Nire aldetik zuek denok animatu patinaia ezagutzera. Beharrezko gauzak, patin pareak, kaskoa, babesak eta ongi pasatzeko gogoak, gehienbat azken hau! Eta ausartzen ez bazarete jarri kontaktuan nirekin eta joango gara Urkulura bueltatxo bat ematera! Ziur gus-tatuko zaizuela!

Maiatzaren 14an, 15ean eta 16an hurbildu Gasteizera, bertako patinaia elkarteak, Gaubelak, antolatutako jaira. Pasa den urtean 600 patinatzailetik gora batu ginen bertan. Animatu eta utzi HANKAK LABANKA!

Suar Aizpuru, PCprest dendako enpresari gaztia

Suar 2009ko urrian lian egin zan autonomo. Lehendik befaborez lagun askon informatikarixa izan da eta oin, mesede moduan egitten zebana lanbide bihurtu dau. Debegesako ekin-tzaileak programiak PCprest informatika dendia zabaltzeko gestino danak egin dittu.

Zela bururatu jatzun infor-matika dendia zabaltzia?

Informatikako goi mailako ziklua egin neban eta bost urtian Aldundiko informatika ardura-duna izan nintzan. Langabezi-xan geratu eta lagunerri fabore moduan ordenagailu mordo bat konpontzen notsela konturatu nintzan. Herrixan zeguan eskaria ikusitta informatika denda bat zabaltzia erabaki neban.

Krisi sasoian, erabaki ausarta. Zelakua izan da herrixan erantzuna?

Soraluzen ez dago informatika alorra jorratzen daben beste dendarik eta hori abantaila da neretako. PCprest-en produktu informatikuen konponketak egitten dittut eta ordenagailu eruangarrixak, argazki kamerak eta beste hainbat produktu be saltzen dittut. Eibarren multinazional ezagun bat zabaldu berri dabe eta seguruenik prezixo aldetik abantailak izango dittuala badakit, baina nik bezeru-erri gertutasuna eskaintzen dotset. Hau da informatika denda haundixetatik bereizten nabena.

Zer eskaini dotsu Debegesa Garapen Agentziak?

Nere proiektua informatika denda bat izango zala baneki-



xan baina berbetatik praktikara han egin neban salto. Autonomo izateko paperak nere kabuz lortu nittuan eta Debegesa Eusko Jaurlaritzak eta INEMeko administratzi- zinuakin harremanetan ipintzen da dirulaguntzak lortzeko. Burokrazixa dana euren esku geratzen da.

Zeintzuk dira ekin-tzaile batek izan bihar dittuan bali- xuak?

Garrantzitsuena egin bihar dana goguakin egittia da. Pertsona arduratsua eta bizixa izan ezkerro, aurrera egittia errezagua izango da baina gogorik bare, proiekturik ez!

Norbere enpresia ipini nahi dabenandako gomendixorik?

Lelengo herrixan ia merkaturik dagan begiratzia. Gero, egitten dan eskeintziak eskari horrekin bat egittia, burokrazixa eta paper asuntuakin kontuz ibiltzia eta egunian eruatia. Baina batez be, goguakin ekittia!

“Bezeru-erri gertutasuna eskaintzen dotset”

HARATEGIA
Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu
Kalebarren 3. Soraluze
Tel. 943 75 12 49

Kontulan Aholkularitza S.L.
Enpresa aholkularitza Jabe Elkarteak Aseguruak
Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tlfonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82
20590 Soraluze GIPUZKOA

14 autotan lapurretak egin dituzte gau bakarrean

Apirilaren 20ko gauean Aezezagun batzuek kalean aparkatutako hamalau autori eraso egin zieten. Herri guztian zehar ikusi ziren kalteak, hasi Ezozi-bidean eta Gabolats altuan, Loralden, Arraikuan, Atxurin, Errekalden, Gipuzkoa Etorbidean, Txurrukenen eta Zeleta kalean.

Irratiak, GPSak eta dokumentazioa

Udaltzaingoak Pil-pileani adierazi dionez, autoetako lehoiak apurtu eta barruko baliodun

gauzak lapurtu zituzten, irratia, GPSak eta zenbait ibilgailutan baita dokumentazioa ere. Horrenbeste lapurreta gau bakar batean egitea "harritzekoa" dela dio Udaltzaingoak: "Lehenago ere pasa izan dira erasoak, gurpilak zulatzea esaterako. Baina horrenbeste autori gau bakar batean eraso egiteko denbora behar da eta pertsona bat baino gehiago, ez baita ordu erdian egiten". Kaltetuetako batzuek ipini dute salaketa.



Argazkian kaltetutako autoetako bat

Ibai inguru zaintzeko eskaera

E. Labaienek erreka inguruak zaintzeko premia ikusi eta herritarrei dei egin nahi die, bertako landaredia herritar denen artean zaintzeko.

Iturria: E. Labaien



Haurreskolako izenematea maiatzaren 3an zabalik

Haurreskolako izen ematea datorren astelehenean zabalduko da maiatzaren 14ra arte. 2009an eta 2010ean jaiotako haurrek eman ahalko dute izena eta 2010eko irailean edo urrian hasiko lirateke haurreskolan. Informazio gehiagorako deitu 943 751 332 zenbakira.

Kolektorea martxan

2009ko abendutik herriko enpresa gehien jarduerak sortutako ur zikin kolektorearen bitartez Apraizko (Elgoibar) araztegiara doaz zuzenean. Ur biltzailearen lanek bi urte inguruko iraupena izan dute eta guztira, lau miloi euroko inbertsioa egin da. Obra hau Eusko Jaurlaritzako Ur Agentziak finantzatu du ehuneko-ehuneko.



Ekintzaileentzako dirulaguntzak

Debegesak, "Debabarrena Ekinean!" ekimenaren bitartez, negozio edo enpresa berri bat martxan jartzeko asmoa duten herritarrei aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua doan eskaintzen die. Enpresa hasi berriei aholkularitza zerbitzua ematen jarraitzen du eta hainbat jardunaldi eta ikastaro antolatzen dituzte enpresaren kudeaketa ahalik eta egokiena eta eraginkorra izateko. Besteak beste, diru-laguntzen gaineko informazio osoa ematen zaie ekintzaileei; baita maileguak modu onean lortzeko bideen berri ere.

Informazio gehiago:
www.debegesa.com.



MAPFRE



SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal



Gabolatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Diagnostika Biologikoa
Naturopatia
Homeopatia
Fitoterapia Ortomolekulara
Kromoterapia
Bach-en loreak...



ioko

Medikuntza Alternatibo Zentrua
Centro de Medicina Alternativa

Ikur Olabarria Corchero

Jardoniartz, 3 Behea
20720 Azkolta,
Boulevard, 9 Principal A
20003 Donostia
Tlf: 615 779 920
www.medicinaalternativa-ioko.net

Nagusien Egoitza bolondres bila

Aurten ere Mesedeetako Amaren Egoitza nagusiak alaitzeko eta entretenitzeko prest dauden bolondresak bilatzen dihardu. Iaz lau izan ziren izena eman zuten herritarrek eta besteak beste, eskulan tailerra egin edo txokolatada girotzen dute izena eman dutenek. Izena eman nahi duenak 943 751136ra deitu beharko du arratsaldean (Laura).



Irukurutzeta Eguna maiatzaren 9an

Santa Kruz Eguna pasatu eta hurrengo domekan, maiatzak 9, ohiturari jarraituz Irukurutzeta Eguna ospatuko da. Goizeko 11:00etan Irukurutzetan bertan salda eta txorizo banaketa egingo da, trikitilariekin. Eguraldi txarra egiten badu, Atsedean txaboletan ospatuko da jai.

Euskaraz bizi egunerako autobusa

2010eko Euskaraz Bizi Eguna domeka honetan ospatuko da Etxarri-Aranatzen. Egun osoko egitaraua antolatu du Euskal Herrian Euskarazek, elkarteak 30 urte bete dituen urtean. Sorluzeko Euskalgintzak autobusa antolatu du egun honekin bat egiteko. Goizeko 9:30ean irtengo da Estaziño kaletik eta irteeran parte hartu nahi duenak izena eman beharko du Gaztelupe tabernan, Arranon edo posta bat idatziz sorluze@euskalherrianeuskaraz.com

Kooperatibak 100 urteak ospatuko ditu hilaren 22an

Maiatzean beteko dira ehun Urte Sorluzeko Kooperatiba sortu zela. Hilaren 21 eta 22ko asteburuan zuzendaritzako kideek hainbat ekitaldi antolatu dituzte ehungarren urteurrena herrian ospatzeko.

Irabaziekin itxi du lanurtea

Apirilaren 22an Urteko Batzar Nagusia egin zuten Sorluzeko Kooperatibako juntako kideek eta bazkideek, guztira 70 lagunek.

Besteak beste, diru kontuak aipatuzituzten. 2009 urtean Sorluzeko Kooperatibak iaz baino 1273 euro gehiago irabazi dituela jakinarazi zuten. Iaz 10.250 euroko irabaziak izan zituen eta aurten berriz, 11.523 euro. Datorren proiektu nagusien berri ere eman zuten, esate baterako, igogailua jartzeko asmoa, batez ere adineko bazkideen irisgarritasuna bermatzeko. Batzar Nagusia juntako kide berrien aukeraketarekin amaitu zen.

EGITARAUA

Maiatzak 21, barixakua:

- Kiroldegiko frontoian, gaueko 22:00etan, PELOTA PARTIDUAK.

Maiatzak 22, zapatua:

- Eguerdiko 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara Zubi Nagusian, haurrentzako PUZGARRIAK eta JOLASAK.
- Eguerdiko 12:00etan Plaza Barrian, Ezoziko Ama Abesbatzaren KANTU SAIOA.
- Ondoren, sagardoa etaxistorra herri-tar guztientzako GALTZAGORRIAK txarangak girotuta.
- Arratsaldeko 19:00etan, Santa Maria La Real Parroki Elizan, MEZA eta ERRESPONSUA hildako bazkideen alde txistulariekin.
- AFARIA TXURRUKAN kooperatibako langile, langile ohi, zuzendaritza batzordeko kide, aurreko zuzendaritza batzordeko presidente ohi eta herriko agintariekin.



Argazkian kooperatibako langileak atarian

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11



MARI MAR HARATEGIA

*Gurean
Euskal Herriko
produktuak!*

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Sorluze

EUSKARASUTRA

EUSKARAZ BIZITZEKO HAMAIKA POSTURA

Maiatzaren 15ean (zapatua) egingo du aurten Pil-pilean Euskara Elkarateak bere urteko Batzar Nagusia (zinean). Aurtengoa batzar berezia izango da, elkar-tearen kontuen berri emateaz gain elkar-tearen inguruan dabilzan euskaldunendako tailer edo gogoeta saio berezi bat eta ondoren bazkaria ere prestatuko dituztelako. Izena emateko Pil-pileanera deitu edo emaila bidali. Batzarraren ostean Iruñian "Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea dugu" lemapean egingo den manifestaziorako autobusa hartuko dute. 16:30ean aterako da Estaziotik eta Pil-pilean eman behar da izena.

Autobusa herritik Euskaraz bizi! Egunerako

Euskaraz bizi! Eguna egingo da domekan Etxarrin (Nafarroa). Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatutako eguna da eta euskaraz bizi nahi duten euskaldun guztiak.

Hona egunean izango den egitaraua: Diana, Nola Bizi Euskaraz" tailerra, kale animazioa, herri kirolak, manifestazioa "Euskal Herrian Euskaraz Bizi!!!" lemapean, herri bazkaria eta kantaldia, haurrentzako jolasak eta pailazoak eta amaitzeko erromeria izango da dantzazale guztiendako. Etxarrira joan nahi duenak Gaztelupe edo Arrano tabernetan eman dezake izena.

DIÑUE...

LOPEZ LEHENDAKARIAREN AITORPENAK

"Eta zu, lehendakari, zer moduz euskara klaseekin?", galdetu dio kazetariak Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakariari. "Ikasten ari naiz, ikasten ari naiz. Ni, izan ere, Ezkerraldekoa naiz, euskara inoiz hitz egin ez den eremu batekoa. Eta euskara zaila da. Gainera, askotan egiten dut piper klaseetan", erantzun du. Gainera, kazetariaren arabera, barrez egin du aitortpena; alegia, euskara klaseetara askotan ez dela joaten.

Vocento taldearen XI Semanal asteburueta astekariak argitaratutako elkarrizketan egin ditu adierazpen horiek Lopezek; Alberto Nuñez Feijoo Galiziako presidentearekin (PP) batera erantzun dio elkarrizketari.

Komunikabideetan zabaldu denez, 36.000 euro kostatzen dira urtean Lopezen euskara eskolak eta Jaurlaritzak ordaintzen ditu. Facebook sare sozialean *Yo tambien haria muchas piras si Jaurlaritz me pagara la matricula* (Nik ere piper asko egingo nituzke matrikula Jaurlaritzak ordainduko balit) taldea sortu da lehendakariaren jarrera kritikatzeko. Baina klaseetara ez dela joaten adierazteaz gain, Ezkerraldean ez dela inoiz euskaraz egin ziurtatu du Lopezek, oinarririk gabeko baieztapena.

Berria, 2010-04-28


GORA



LOREA

Eskubideen eta gaixotasunen prebentzioa!

Bularretako minbiziaren prebentziorako hitzaldia iragartzeko kartelak euskaraz jarri dituzte. Eskertzekoa da, gaixotasunen prebentzioaz gain hizkuntza eskubideen urraketen prebentzioa ere egiten dute eta.



ARANTZA

Axolagabekeriak eta astakeriak!

Kontu barregarria litzateke tristea ez balitz. Zoritzarrez, sarritan jasan behar izaten ditugu euskaldunok antzeko axolagabekeriak. Horrelakoak salatu egin behar dira eta berehala zuzentzeko eskatu.



BEHERA



Zulotik
begira

DBHko ikasleen jaialdia



Ohitura den bezala, DBHko ikasleok jaialdi bat prestatu genuen Aste Santuari ongi etorri oparo bat emateko. Gure asmoa, denon artean zerbait prestatzea izan zen, eta hainbat ekintza antolatu genituen denok parte hartzeko asmoz, eta baita lortu ere.

Egun horretako egitaraua hauxe izan zen:

Zortzi eta erdietatik hamar eta erdietara, batzuek pelikula bat ikusten zuten bitartean, beste batzuek, kiroldegira joan ginen futbol txapelketa jolastera. Lehenengo ziklokoen arteko finala, 2. mailakoek irabazi zuten. Bigarren zikloari dagokionez, 3. mailakoek irabazi genuen.

Partiduak gogorrak, lehiagarriak eta biziak izan ziren, baita zauritutakoak ere. Jokalarietako batek eskumuturra puskatu zuen bultzakada baten ondorioz. Baina zorionez, ez zen ezer larririk gertatu!

Hamaiketean, ikasleok eta irakasleak hain gogoko dugun "TXORIPANA" dastatu genuen. Ondoren, ekintza berri bat

egin zen, patata tortila lehiaketa. Ikusita zein ondo atera zen, ziur gaude klasiko bat bihurtuko dela hemendik aurrera. Mahaiak prestatu, zartaginak sutan jarri eta arraultza, patata eta abar atera ondoren, lanean jo eta su jarri ginen. Patata tortilaren usain gozoa eta kanpoan zegoen giro onarekin batera, hiruko jaurtiketen txapelketa jokatu zen.

Epaimahaia mahai bakoitzetik pasatu ondoren, ikasle guztiok dastatu genituen besteon tortila bikainak. Esan beharra dago, parte hartu zuten batzuentzat, bere bizitzako lehen tortila izan zela, eta ez zirela hain gaizki atera. Esaten zutenenez, etxean tortilak egitera animatuko dira. Dena den, tortila guztiak jan ziren. Han ez zen ezer gelditu. Gainera, agenda 21ean ikasi dugun bezala, erabilitako olio guztia ontziratu eta birziklatzera eraman genuen. Baita pataten eta arraultzen oskolak ere "konposta" egiteko.

Zain gaude hurrengo jaialdia ospatzeko!!!!!!!

“Saudaderik bare, ez dago fadorik”

Amalia Rodriguesen abestiekin ekin zioten duela lau urte Ane, Jon, Arianne eta Domentzek Ventos de Saudade taldeari. Eztarria eta instrumentuak fresko dituzte oraindik. Momentuan bertsio berriak lantzen dihardute erreperitorio klasiko eta modernoa uztartuko dituen kontzertua osatzeko asmoz. Maiatzaren 14an Zinean eskainiko duten emanaldian horren testigu izango gara. Betiko moduan, denaren gainetik sentimendua ipiniko dute, fadoa interpretatzeko sentitzea ezinbestekoa delako.

Hastapenari helduz, zela sortu zan taldia?

Galipoteko jaixak dauke kulpia...2005eko udan lehenengoz fado bi gertatu genduzen jaialdirako eta ondorenia etorri zan gabonetako kontzertu txikixa kapillan. Hasieran abotsa eta gitarra espainoliakin hasi ginan eta gero batu jakozen flautia eta gitarra portugesa be.

Nundik datorkizue faduakiko afizinua?

Oindala urte gutxi batzuk arte ez genduan ezagutzen. Domentzek izan zeban lehenengo kontaktua faduakin eta pixkakak kontajiatuegingintuan. Oso musika sakona eta sentimentala da, alde trajikua eta itxaropentsua erakusten dittuana eta horrek erakarri gaitu.

Bersino barririk etara dozue?

Amalia Rodriguez fadista haundixan bersiñuak dira asko, klasikuak edo. Bestetik Mariza, Misia, Raquel Tavares eta beste fadista barrizaille batzuen kantuen bersiñuak be egitten doguz. Talde-

ko danon zaletasunak batzen ahalegintzen gara, klasikuak eta modernuak. Azkenaldi honetan erreperitorixua aldatzen gabiz, bost urtian kantuak gastuaz juaten dira eta.

*“Hizkuntza
aproposa da
sentimenduk
goxoki
adierazteko”*

Hamengo portugesak saudadez baina pozik hartuko dittue zuen kantuak. Ze esan izan dotsue?

Harrittu izan dia euskeraz entzun gaittuenian, Portugalgo zein zonaldetakuak garan galdetu doskue... Norberan herriko kantuak beste kultura bateko jendiagandik entzutiak harrotasuna emoten dau. Portugalgo aldizkari baterako be elkarrizketa bat egin zoskuen: “os vascos tambien saben cantar fado” izenburupian.

Arianne, zu zara jendiari belarrira portugez goxua kantatzen dotsazuna. Zelakua da bitartekari lana?

Ez dot sekula portugezik ikasi eta hasieran lotsatu egitten nintzan, geizki esango neban bildurrez



edo. Musikia entzunaz ahoskeria hobetzen saiatu naiz eta horrek segurtasuna emon dosta. Hizkuntza aproposa da sentimenduak modu goxo baten adierazteko eta neretzako kantuak sakonian daroiena komunikatzen saiatzen naiz.

Erraz heldu zotsazun zer egin horri?

Faduak kantatzia ez da lan erreza. Kantaera berezixa da eta norberan gogo eta animia ipini bihar da, abotsa moldatuz gain. Fadua barneratu egin bihar da norberagandik urten deizen. Indarra eta goxotasuna, tristuria eta itxaropena, danetik dauka faduak eta horrek danak espresatzen eta neure egitten ikasten jarraitzen dot.

Herri min gazi gozua zuek be sentitzen dozue?

Saudadea. Faduakin bat egitten daben berbia da, musika mota honendako deskribapen egokixena. Sentidu ezian, ezin da fadorik jo edo abestu. Saudaderik bare, ez dago fadorik.

Portugalgo ze herri, hiri, toki gustatzen jatzue?

Egon gara Coimbra eta Oporton, baina ez dogu nahi beste ezagutzen. Danon artian aukeratzekotan, Lisboa bera. Alde zaharreko auzo, kale estu, etxe zahar, portu, itsaso eta girua dira faduetako irudixak.

Domentx, gitarra portugesa lehendik ezaguna zenkan? Soinu aldetik, joteko eta heltzeko sasoiak?

Faduekin batera ezagutu neban hain soinu berezixa daukan instrumentu hau. Faduan lagun bateraezina bihurtu zan eta kantuari laguntzen dotsa bere "trinuekin", oin abotsakin oin gitarriakin. 6 soka bikoitz daukaz eta metalikuak izatiak emoten dotsa soinu hori. Afinaziñua be berezixa dauka eta hasieran ez da oso erreza, baina poliki-poliki banoia ikasten.

Ane, txirulia be ondo egokitzen da. Zuretako be fadua estilo berri bat izan da?

Faduekin hasi aurretik musika eskolan, lagunartian edota txarangan jo izan dot flautia, baina faduak sekula. Pertsonalki oso pozik naio, faduari esker flautia joteko beste errejistro bat ezagutu dotelako, teknikoki baino espresino aldetik gehixago eskatu dostana.

Zer eskeiniko dozue maiatzaren 14ko kontzertuan?

Oin berrizten gabizen erreperatorioko 15 bat kantu joko doguz, gonbidatu berezi batekin gainera; sorpresa politta izango da.

"Fadua barneratu egin bihar da norberagandik urten deizen."



Iturria: J.A. Basauri

KONTZERTUA

MAIATZAK 14, BARIXAKUA

Gabeko 22:30ean Zinean
Sarrera 5 eurotan, kiroldegiko harrera-gunean salgai eguardira arte edo ordu erdi lehenago.

Arianne Unamuno: ahotsa

Domentx Uzin: gitarra portugesa

Ane Ugalde: zeharkako txirulia

Jon Basauri: gitarra espainolia



Iturria: Bertol Arrieta



TXULALAI



1 DANTZARAKO PREST



2 KALEJIRA



3 BARRURA ETA KANPORA



4 I PUR DIA I PURDIAREN

4 URTEKOAK
DANTZAPOLIT
BATIKASTEN
IBILIGARRK

TXULALAI
DUZUE NAIZ
ETA HONA HE MEN
PAUSUAK ZUEK ER
DANTE ATZEEKO
ANIMO!



Zetan jolasten dozu lagunekin?

Nun jolasten dozue?

Olatz Alberdi, 7 urte



Neri gehixen eskolako patixuan txirristan ibiltzia gustatzen jata. Lagunak sokasaltuan be ibiltzen gara noizian behin baina nahiko gitxi. Normalian nere gelako neskekin jolasten dot, edo ondoko gelakuekin.

Glody Adannai, 6 urte



Nere lagun batek joku barri bat asmatu dau, "Brazalete" deitzen dana. Brazaletian jokuan boteriak dittugula sinisten dogu eta gure artian burrukan ibiltzen gara, baina lagun moduan eta minik hartu barik, jolasian! Etxian play stationakin ibiltzen naiz bestela.

Guk gehixenetan aita eta ama izatera jolasten dogu eskolako jolastokixan. Bat ama da, beste bat aita, beste bat semia... eta hola familia bat egin arte. Janarixakin esperimentuak egittia be asko gustatzen jata!

June Eguren, 6 urte



Neri gehixen futbolian jolastia gustatzen jata. Normalian eskolan jolasten dot baina kalia be ibiltzen naiz lagunekin. Ez daukagu futbolian ibiltzeko leku handirik herrixan. Athletic taldekua naiz eta ligia berak irabaztia nahi dot!

Alberto Arribas, 6 urte



DENBORAPASA

3 Moztu eta osatu

Idazlana egiteko arkatz eta bolaluma berriak erosi ditu lzarnek. Irudiak erditik ebaki ditugu. Lotuko al duzu arkatz eta bolaluma bakoitza bere puntarekin?


1)		a)	
2)		b)	
3)		c)	
4)		d)	

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Lelengo labore transgenikuak merkaturatzen hasi ziranetik gero eta azalera haundixagua emoten dotse nekazarixak transgenikueri, eta gero eta herrialde gehixagotan onartzen dira genetikoki eraldatutako barietatiak, Euskal Herrixan esate baterako.

Elikagai transgenikuak dendetan desberdinduta egon biharko lirakez?

MIKEL GARITANO
Soldadoria




Bai, ze ondio ez dakigu ze arazo ekarriko dittuen. Markatuta jua biharko lirakez eta nundik datozen esan. Transgenikuak uste dot ondio gutxi darella baina beneno lar dira gorputzandako.

MYRIAM GOENAGA
Kooperatibako langilia



Dendetan ez dago horren informazinorik eta markatuta egon biharko lirakez zer jaten dogun jakitzeko. Ni ahalegintzen naiz ez erosten eta ahal badogu gure etxian ez dogu hartzen holakorik.

MAITE URTIAGA
Dendarixa



Ba hobeto legoke desberdinduta egotia, ahora zer sartzen doten jakitzeko bada be. Guk jaki naturalak jatenditugu eta oinumiakin arreta haundixagua emoten dotsat elikagaixeri.

JULEN IÑURRIETA
Jubilatua



Bai jakina! Desberdinduta asko hobe. Plagen kontra ona dala dinue, baina ez osasunandako. Gainera, ez ei dau hazitxarako balixo eta barrixa eskatu bihar ei da. Urtiak erakutsiko dittue kaltiak.

TXURITXU
Zuekin gozaten
943 75 24 43
Sanleñak Kalea 22 Bidea

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Hnos. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
I. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

Musika, antzerkia eta margolanak gozagai

Margo erakusketa: Krabelin Pintura-Eskolako ikasleen margolanak maiatzaren 7tik 15era kiroldegiko erakusketa aretoan. Astegunetan 19:00etatik 20:30era eta zapatuetan 12:00etatik 13.30era.

Greban gaude antzezlanak: maiatzaren 7an 22:15ean Zinean, Larrikun Antzerki taldearen eskutik.

Musika tailerreko ikasleen kontzertua: maiatzaren 12an arratsaldeko 15:15ean frontoian. (Ipuin musikatua eta Musika Eskolako matrikulazio kanpainaren hasiera).

Ventos de Saudade: maiatzaren 14ean 22:30ean Zinean.

Oreka Art: Keixeta margolariaren erakusketa, maiatzaren 14tik 30era bitartean. Informazio gehiago: www.keixeta.com.

**Jaiak prestatzeko bilera**

Udaleko Jai Batzordearen hurrengo bilera maiatzaren 4an izango da, martitzena, arratsaldeko 20:00etan udaletxeko Saio Aretoan.

Jaietako kartel lehiaketa

Martxan da 2010. urteko Santiago-Santa Ana jaietako kartel lehiaketa. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Maiatzaren 31ko eguerdiko ordu biak baino lehen aurkeztu behar dira udaletxeko bulegoetan. Karteletan "2010 SORALUZETAKO JAIK" derri gorrez aipatu behar da.

**Gazta egiten giro bikainean**

Dozena bat lagun batu ziren pasa den zapatuan San Andres auzoko Gizarte-txean Josu Gil Eibartarrak eskainitako gazta ikastaroan parte hartzeko. Ikastaroan, gazta egiteko tenperaturak, neurriak eta produktuak zeintzuk izan behar diren ikasi zuten.

Trikitixa Egunean herri osoa dantzan

2010. urteko Debagoieneko Trikitixa Egunak 300 trikitilari-tik gora batu zituen herrian. Hemen irudiak:

**Trikitixa Egunaren harira jasotako eskertzak**

Kaixo Soralezarrok.

Espero dogu egun on bat pasatuko zenduela zapatuan. Lehenik eta behin gure eskertzia jaialdi hau aurrera eruatzen lagundu doskuzuen danori: Bolondres, Pii-Pileaneri, udaletxe, Urrats dantza taldea, apaizari, diseinatzaile, Xero-Xiete, taberna, dendarri, banketxe, lantegi, Allegro eta Arrano elkartieri, herriko jendiari parte hartu izanagaittik eta Txurruka jatetxeari halako kopuru haundixari baietz esatiarren (bateron bat ahaztu baldin bajaku barkatu).

Antolakuntza

Zorionak eta mila esker Soralezeko Gobernu Taldearen izenean larunbatean ospatu zen Deba Goieneko Trikitixa Egunean lan egin zuten guztiei. Zuek bezelako herritarrekin ez dago ezinezkorik. Agur bat!

Udal Gobernu Taldea

**Game Over taldea saritua**

Hilaren 25ean II. Musika Modernoko Lehiaketa jokatu zen Bergaran. Gipuzkoako 17 talderen artean Soralezeko bik hartu zuten parte, Game Over eta Pearl Harbour taldeek, eta lehenengoek entzulearen saria eskuratu zuten 200 euroko diru sariarekin batera.

Iturria: Itziar Burunza

V. Emakume Pala Txapelketa maiatzean hasiko da

Maiatzaren 6an amaituko da pala txapelketako 1. fasea. Aurren inoizko parte hartze handiena izango du txapelketak, 18 bikote (36 emakume) arituko baitira lehian San Andres auzoko pilotalekuan. Lehen fasea bukatuta, uztailearen 10eko finala eta 3. eta 4. postuak erabakitzeko beste bi fase jokatu dituzte.

“Emakumeen inbisibilitatea alor askotan gertatzen da”

Aurtengoa txapelketaren bosgarren edizioa da eta sorrerako

helburu bera izaten jarraitzen du: “kirolarekin gozatzea, emakumeon artean kirol mailako harremanak bultzatzea eta osasunean kirolak duen garrantzia ulertzea. Emakumeen inbisibilitatea alor askotan ematen da, kirol arloan bezala torturan ere eta emakumeok pairatzen dugun beste errealitate honekin ere bat egin nahi izan dugu txapelketa honen bidez” azaldu dute antolatzaileek.

Soraluzetarrak Gipuzkoako XLI. Hirutxirlo Bolo Txapelketan

Sei dira guztira Gipuzkoako Hirutxirlo Bolo Txapelketan lehiatzen diharduten soraluzetarrak. Azken jaurtialdia apirilaren 17an San Andreseko bolatokia izan zen eta bertan ez zen soraluzetarrik sailkatu.

Hurrengo jaurtialdiak:

Maiatzak 8: San Pedro (Elgoibar)
Maiatzak 15: Lastur (Deba)

Maiatzak 22: San Migel (Elgoibar)
Maiatzak 29: Asola-Berri (Eibar)
Ekainak 5: Ezози.

Soraluzetarren sailkapena:

1. Bittor Nuñez (11 txirlorakin)
2. Jose Antonio Nuñez (4 txir.)
3. Iñaki Ariznabarreta (4 txir.)
4. Jose Luis Larreategi (1 txir.)
5. Jose Gabriel Nuñez
6. Juan Kruz Arizaga (ordezkoa)



Iturria: Aitor Zabala

Soraluzeko pilotariak herri arteko txapelketatik kanpo

Pasa den barixakuan bueltako partiduak jokatu zituzten Soraluzeko pilotariak eta Lasarte-Oriakoek. 2-1 galdu eta txapelketatik kanpo geratu dira herriko pilotariak. Kadeteek 22-6 galdu zuten; Jubenilek 22-2; Nagusiek berriz 22-14 irabazi zuten. Frontoia bete egin zen eta giro onean egin zuten gaua.



EMAITZAK

PELOTA

Berasaluze IX – Pascual 22
Idoate – Laskurain 11

Berasaluze IX – Laskurain 22
Olazabal – Pascual 9

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Soraluzen jokaturako partidak

Kadeteek 22 - 6 galdu
Jubenilek 22 - 2 galdu
Nagusiak 22 - 14 irabazi

LASARTEN JOKATURAKO PARTIDAK

Kadeteek 22 - 6 irabazi
Jubenilek 22 - 9 irabazi
Nagusiak 22 - 2 galdu

FUTBOLA

Ilintxa S.D. – Sora (Erreg.) 5 - 0
Sora (Erreg.) – Zumaiako 2 - 4
Urola K.E. – Sora (Jub.) 3 - 3
Sora (Jub.) – Urki C.D. 2 - 2
Sora (Kad.) – Elgoibar “B” 2 - 5
Eibartarrak – Sora (Kad.) 2 - 3

AGENDA

PELOTA

Barixakua 30, 20:30ean Sestaoko pilotalekuan

Titin III – Arruti
Idoate – Laskurain

FUTBOLA

Zapatua 1, 16:30ean Mendibeltzen
Getariako Keta F.T. – Sora (Erreg.)

Domeka 2, 15:30ean Unben
Urki – Sora (Kad.)

Sora (Jub.) deskantsua izango du.


MENDI IRTEERA

Domeka, maiatzak 2

Arantzazu-Enaitz-Arantzazu
Irteera goizeko 09:00etan



ZORION AGURRAK



Ander Sanchez

Apirilaren urteak betetzen dituzulako. Muxu eta zorionik beroenak etxeko denon partez!!




Lucia Dieguez

Maiatzaren 6an 22 urte! Zorionak eta muxu handi asko ile-apaindegiko lagunen partez!



Eider Varela

Apirilaren 22an 27 urte! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta sekula ez galdu zure irribarre politx hori!!



Goizane ta Eguzkiñe

Hilaren 28an 27 urte beteak Egunsentia eta eguzkia... ooooo000 Zorionak polittak Kuadrillakuen partetik



Beñat Urrestarazu

Zorionak politta, zure lehenengo urtebetetzean! Etxeko guztion partez!



Ekain Larrañaga

Apirilaren 21ean 6 urte! Zorionak mutil handi!! Muxu handi bat etxekoan partez!!



Garazi Prieto

Maiatzaren 13an 2 urte! Zorionak sorgintxo eta marrubizko muxu handi bat etxekoan partez!



Garazi Jauntsarats

Maiatzaren 8an 9 urte! Zorionak maitia eta muxu handi bat oen partez!



Jone Olamusu

Apirilaren 21ean 12 urte! Zorionak maitia eta muxu handi asko etxekoan partez!



June Eguren

Maiatzaren 3an 7 urte! Zorionak panpox! Milaka muxu etxekoan partez!



Lore Leturiondo García

Apirilaren 11n 5 urte! Zorionak eta muxu handi-handi bat etxekoan partez!



Miren Narbaiza

Zorionak begi urdin!! Muxu erraldoi bat eta pila bat zorion Pileko kuadrilian partez!



Pau Rascon Velazquez

Maiatzaren 7an 3 urte! Zorionak mutikote eta muxu handi bat Onar eta etxekoan partez!

jaiotakoak

ZAKARIA SIJILMASSI
URKO TREBIÑO LINDELMANN



hildakoak

JAVIER ABAITU BOLLAIN



LEHTAKETA

- Zein ageri da argazki honetan?



- **Saria:** 30 euroko herriko produktuen otarra

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea:** Ainhoa Astigarraga
- **Luis Gomez,** herriko abadea da pasa den alean agertzen zen soraluzetarra.



ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Euskomedia

1915EKO AGINTARIXAK

1915eko agintarixak ageri dira argazki honetan. Eusko Ikaskuntzako Euskomedia Fundazinuaren artxibo digitalian dago gordeta eta Patxi Aizpuru plaentxiarrak topatu dau sarian.

Ezkerretik eskumara:

Aurrian: Jose Maria Laskurain eta Jose Sesma, zinegotzixak; Bigarren ilaran Jose Arizaga, zinegotzixa; Santos Treviño, epaile munizipala; Pedro Fernandez, guardia zibileko postuko komandantia; Ambrosio Orueta, alkatia; Pantaleon Oregi, sindikua; Ignacio Aranguren, udaleko idazkarixa; Jose Leturiondo, zinegotzixa.

Atzian: Bruno Maiztegi, Miguel Galarraga eta Trinidad Placencia, zinegotzixak; Florencio Arrazain, farmazeutikua; Jose Martinez Carrillo, Ibangrandeko kondia; Martin Maiztegi, udaltzaina; Eusebio Arizaga, armagina.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

**HEZIKETA ZIKLOAK eta
TXANDAKAKO INGENIARITZA**



Ate irekiak

APIRILAK 24
(11:00etan)

IMH- Elgoibar-Tfnoa.943744132 imh@imh.es-www.imh.es

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81



KM
Desing

Diseinua eta Sormena

Poligono Amillage, n° 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbeberria Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua

ELGOIBAR ARREITURRE B.H.I. 2010/2011 IKASTURTEA



ELGOIBARKO INSTITUTUA
Elgoibar Arreiturre B.H.I.
Arregitorre 2
Tel.: 943 74 83 97
E-posta: 013431aa@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.net



AUREMATRIKULARAKO DATAK: Maiatzaren 3tik 12ra

BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

Teknologia (zikloetarako)

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak



Clínica Oftalmológica

RECALDE

Oftalmologi Klinika

**MIOPIA EBAKUNTZAK
INTRALASE® FEMTOSEGUNDO LASERRAREKIN
FINANTZIAKETA EZIN HOBEA**

Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR - Tfnoa.: 943 201 844